

7 EKAINAREN 7AN, OSTIRALA, GOLEM BAIONAN, 19:30EAN

Un lugar común

Celia Giraldo (Espainia, 2024, 88')

Pilar eguneroko ohikerian bizi da, inoiz zalantzan jarri ez duen eta soil-soilik lana, familia eta etxea den ohikerian. Egun batetik bestera, ordea, lanetik kaleratzeak jota behar ez duten bi neraberren ama gisa duen eginkizunari tinko eusten utziko du.

Celia Giraldo. Cornellá de Llobregat, 1995. ESCAC eskolan graduatua, Zuzendaritzako espezialitatean. Zenbait lanetan aritu da zuzendaritzan, besteak beste, Te busco en todos (2018) film laburrean eta La filla d'algú (2019) film luze kolektiboan. Un lugar común bere opera prima da.

Gonbidatua: Celia Giraldo, filmaren zuzendaria.



10 EKAINAREN 10EAN, ASTELEHENA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Blondi

Dolores Fonzi (Argentina, 2023, 88')

Aktore-zerrendaren antzeppen onenaren saria, Buenos Airesko Zinema Independentearen Nazioarteko Jaialdian, 2023an.

Blondi eta Mirko lagun onenak dira. Izugarri gustuko dute elkarrekin bizitzea, musika bera entzuten dute, film berberak ikusten dituzte, lagun berberak dituzte. Dena perfektua da haien artean, baina, nahiz eta ia adin berekoak direla dirudien, Blondi Mirkoren ama da.

Dolores Fonzi. Buenos Aires, 1978. Prestatu zen aktore moduan, eta zinemaren, telebistan eta antzerkian lan egin du hamazazpi urte zituenetik. Aktore-lanean egin dituen artean El fondo del mar (2003) eta Truman (2015) nabarmendu behar dira. 2023an, gidoilari eta zuzendari moduan egin zuen lehen lana Blondi filmean.

Gonbidatua: Sonia Herrera. Doktorea Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean, ikus-entzunezkoak genero-ikuspegitik aztertzean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Ikertzailea, irakaslea, aktibista, bake-kazetaritzan eta ikasketa feministetan.



11 EKAINAREN 11N, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN

Parir

Clàudia Reigena (Espainia, 2023, 88')

Eskualde-ospitale publiko txiki batean, emaginak buru dituen erditzeko gela batean, erditzeetan eredu humanizatu baten arabera lagun egiten dute: emakumeak erdigunean jarrita eta beren eskubideak errespetatuta. Parir indarkeria obstetrikoiari eta haren ondorioei buruzko kontaketa korala da.

Clàudia Reig. Valentzia, 1990. Dokumentalen zuzendaria Barret Cooperativan, eta bazkidea ekoiztetxe horretan. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen. Beste proiektu batzuen artean, aldarrikapen feminista eta LGTBQ+ kolektiboaren aldarrikapen En la brecha eta Resistencia trans dokumentalak zuzendu ditu. Ekoizlea, kamera-operadorea eta muntatzailea ere bada.

Gonbidatua: Clàudia Reig, filmaren zuzendaria.



12 EKAINAREN 12AN, ASTEAZKENA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Le retour

Catherine Corsini (Frantzia, 2023, 106')

Kheididja Korsikara itzuliko da, Jessica eta Farah alaba nerabeekin, hamabost urte lehenago uhartea baldintza tragikoetan atzean utzi bazuten ere. Han, familia zuri dirudun baten seme-alaben arduraduna izango da uda osoan.

Catherine Corsini, zinema-zuzendari, gidoilari eta aktore frantziarra. Parisko Arte Dramatikoko Kontserbatorioan ikasi zuen. Debuta Poker (1987) lanarekin egin bazuen ere, La nueva Eva (1999) lanarekin egin zen ezaguna nazioartean, Berlinen hautatu baitzuten. Geroztik, hamar bat film zuzendu ditu, esate baterako, Partir (2009), Tres mundos (2012), Un amor de verano (2015), Locarnon saritua, Un amor imposible (2018) eta La fractura (2021).

Gonbidatua: Vanina Vázquez, lizentziaduna Psikologian eta aditua Generoan eta Familia Bitartekotzan. Proiektu-teknikaria da Euala Inicativas enpresan. Zinematografoaren abenturari eskainitako El eclipse podcasta gidatzen du.



12 EKAINAREN 12AN, ASTEAZKENA, GOLEM BAIONAN, 17:00ETAN

Film laburrak femeninoan 2024

Colorado, Sandra Gallego eta Pilar Gómezena (Espainia, 2023, 12'). Carmen 74 urteko emakumea da, eta bere egoera pertsonalak garai bateko lagun batekin, Angelesekin, elkartzea behartzera eramango du, 30 urte baino gehiago baitira ez duela ikusi.

Estigma, Aida Argüellesena (Espainia, 2023, 7'). Estigma filmak emakume berezi baten bizitza kontatzen du. Emakume azkarra eta talentuduna da, baina, gertakari traumatiko baten ondoren, bere askatasuna betiko markatuko duen krisi bat izango du.

Hábitat, Elena Escurarena (Espainia, 2023, 18'). Egutero, Marisak kaletik behatzen dio etxe horri: eraikina, balkoia, leihatearen atzean igarotzen den bizimodua. Egun batean, ordea, Marisak egiteke utzi zuen gauza bat egitea erabakiko du: agurtzea.

Intercambio, Amaia Yoldirena (Espainia, 2023, 14'). Antoniok eta Inésekin ez dute elkar ezagutzen, baina hitzordua egingo dute, aplikazio baten bidez, Inésekin gehiago jasaten ez duen eta Antoniok probatu nahi duen zerbaitei trukatzeko.

Mentiste Amanda, Eva Libertad eta Nuria Muñozena (Espainia, 2023, 16'). Amanda eta Virgi ezin bananduzko lagunak dira, baina ez ez da berdina izango arratsalde batean gizon bat gurutzatzen denean beren bidean.

O, María Monrealena (Espainia, 2023, 24'). María de la O alargandu berri den emakumea da, eta pika-nahasmendua du, behar konpultsiboa baitu ondu gabeko oliba osoak irensteko.

Gonbidatuak: María Monreal (Iruñea, 1996) O-ko zuzendaria eta Amaia Yoldi (Iruñea, 1973) Intercambio-ko zuzendaria.



11 EKAINAREN 11N, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 18:00ETAN

Krutzalteatik Uronarat

Uztarroze herria eta Marina Lameiro (Espainia, 2024, 28')

Uztarroze Nafarroako Pirinioetako herria da. 2022ko uda birtarian, han 3 film filmatu ziren, bertako herritarren egiletza eta erabakiak aintzat hartu gabe. Laugarren film honetan, herriak kolektiboki erabaki du nola irudikatu herria eta beren burua.

Marina Lameiro. Iruñea, 1986. Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentzia lortu zuen URJn, eta Sorkuntzako Dokumentale-tako masterra egin zuen UPFn. 2013an, Muntaketan espezializatu zen unibertsitate horretan, eta gero artista egoiliarra izan zen UnionDocsen, New Yorken. Hiruki Filmak sortu du beste batzuekin batera.

Gonbidatua: Marina Lameiro, filmaren zuzendaria.



Luces en sombra

Ione Atenearena (Espainia, 2024, 45')



Lidak, Cándidak, Katiak, Silviak, Rosa Marik eta Helenak entzun nahi ez den errealitatea deskribatzen dute, deserosoa, zaintzaileena, aipatzen ez dena. Aurrez aurre dituzten egiturazko berdintasunik ez eta lege-hutsune eta hutsune moral guztiak hartzen ditu barne beren kontaketa.

Ione Atenea. Iruñea, 1985. Lizentziaduna da Arte Ederretan, EHU. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Argazkilaritzako, Arteko eta Teknikako masterra du, eta Pompeu Fabrako Sorkuntzako Dokumentalen masterra.

Gonbidatuak: Ione Atenea, filmaren zuzendaria; Katia Reimberg eta Soraya Ronquillo, bi aktibistek Bidez Bide elkartearen lan egiten dute.

13 EKAINAREN 13AN, OSTEGUNA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Solo

Sophie Dupuisena (Kanada, 2023, 101')

Film onenaren saria Torontoko Zinemaldian (2023), jarraitu beharreko zuzendarien saria Palm Springs International Film Festivalen.

Simon drag izar gaztea da, goraka ari dena Montrealen. Lehen begi-kolpeko maitasuna izango du Olivier ezagutzen duenean, ikuskizuneko kide berria. Dena den, gauaren munduko Simon, musikarena eta performanceena, bizitza errealeko Simonengandik oso urrun dago.

Sophie Dupuis, kanadar zinema-zuzendaria eta gidoilaria, jatorriz Val-d'Orekoa, Quebeco. Debuta egin zuen filma, Family First (Chien de garde), 2018an estreinatua zen eta Kanadako hautagai moduan hautatu zuten, atzerriko hizkuntzan egindako film onenaren saria jasotzeko, Akademiaren 91. Sarietan.

Gonbidatua: Albina Stardust (Eneko Garcia) drag artista da, Burlatakoa eta ez binarioa. Ikuskizun eta beste ekitaldi batzuek gain, dragari eta haren historiari buruzko tailerrak eskaintzen ditu, hedabideetan ere lan egiten du, adibidez, ETB1eko Biba zuek! saioan eta Euskalerrira Irratiko Flop Kultura podcastean. Bere aktibismo politikoen inguruetan nabarmentzen da.



14 EKAINAREN 14AN, OSTIRALA, GOLEM BAIONAN, 11:00ETAN ETA 19:30EAN

Paradise is Burning

Mika Gustafsonena (Suedia, 2023, 108')

Zuzenari onenaren saria (Drizzanti) Veneziako Zinemaldian (2023), film onena eta produkzio-diseinu onena Suediako Guldbagge sarietan (2024) eta opera prima onena London Film Festivalen (2023)

7 eta 15 urte arteko hiru ahizpa bakarrik bizi dira, amak desagertuta ematen baititu denboraldi luzeak. Gizarte-zerbitzuek familia-bilera egiteko exijitzen dutenean, ahizpa zaharrenak, Laurak, amaren ordezko bat bilatzea planeatuko du.

Mika Gustafson (Suedia, 1988). Graduatu da Valand Film Academyn (Suedia). Silvana dokumentalak 2017ko dokumental onenaren saria jaso zuen Suediako Zinemako Sari Nazionaletan. Paradise Is Burning fikziozko lehen film luzea da.

Gonbidatua: Laura Latorre, gizarte-hezitzailea, terapeuta narratiboa eta idazlea da. Duela hamarkada batetik baino gehiagotik, taldeentzako prestakuntza-guneak errazten ditu, eta hizlari moduan parte hartzen du jardunaldi, biltzar, indarkeria matxistarekin eta maitasunaren eraikuntza patriarkal eta kapitalistarekin lotutakoetan.



11 EKAINAREN 11N, ASTEARTEA, GOLEM BAIONAN, 20:00ETAN

Diario de mi sextorsión

Patricia Franquesarena (Espainia, 2024, 64')

Ordenagailua lapurtu ondoren xantaia digitalaren labirinto batean harrapatuta, Patricia Franquesa zuzendariak jazarpena dokumentatzen du denbora errealean, bizirik irauteko modu gisa eta Internet bidez sexu-xantaia baten biktima gisa.

Patricia Franquesa. Tel Aviven hasi zuen ibilbidea, Heymann Brothers Films eta Hilla Medaliarekin lan egiten. Hainbat urtean ikasten aritu eta gero, Bartzelonara, itzultzea erabaki zuen, eta Gadea Films sortu zuen beste batzuekin batera. Mexikoren, Laura Herrero Garvinen La Mami ekoitzi zuten. Zuzendari moduan debuta egin duen Oh Dear Sara koprodukzioa da.

Gonbidatua: Patricia Franquesa, filmaren zuzendaria. Saioaren amabitxia CIMA izango da, Emakume Zinemagileen eta Ikus-entzunezko Hedabideetako Emakumeen Elkarte. María Monrealek gidatuko du, CIMAk Nafarroan duen ordezkaririk.



Pamplona, del 7 al 14 de junio de 2024
38 Muestra Internacional de Cine y Mujeres
Zinemaren eta Emakumeen 38. Erakusketa Internazionala
Iruñea, 2024ko ekainaren 7tik 14 era

Colaboran/
Laguntzaileak



Organizan/
Antolatzaileak



EMANALDI GUZTIAK GOLEM BAIONAN IZANGO DIRA
SAIOAREN PREZIOA: Goizak 5 €. Arratsaldeak 6 €. Sei saioetako bonua 30 €
www.golem.es
www.fundacionipes.org/cineymujeres